



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko maiatzaren 10a

67. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru-lege proiektuak:**

—11-24/LEY-00002. 3/2024 Foru Legea, apirilaren 25ekoa, 2024ko aurrekontuan Nafarroako Gobernuko zenbait departamenturi 539.000 euroko aparteko kreditua ematekoa. Akats zuzenketa (3. or.).

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—11-24/MOC-00065. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen baitu gure erkidegoan prentsa-askatasuna babesteko, eta Nafarroako Gobernua premiatzen baitu ez dezan kazetarien lana eragotz. Nafarroako Alderdi Popularrak aurkeztu du (4. or.).

—11-24/MOC-00055. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Gerra Zibilean eta frankismoan biktima izandakoen eta errepresaliatuen “Oroibidea” datu-basean sar ditzan Errepublikako agintarien kontrolpeko lurraldean eraildakoak eta errepresaliatutakoak. Memoria eta Bizikidetz, Kanpo Ekintza eta Euskara Batzordeak ezetsi du (5. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

—11-24/PES-00213. Galdera, gizarte-bazterkeria larria dela-eta Iruñean izapidetutako errenta bermatuei buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (6. or.).

—11-24/PES-00214. Galdera, gizarte-bazterkeria larria dela-eta Nafarroan izapidetutako errenta bermatuei buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (7. or.).

—11-24/PES-00215. Galdera, Oronoz-Mugairiko hiri arteko autobusez aldatzeko geltokiari buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (7. or.).

—11-24/PES-00216. Galdera, NEKP Basoaren proiektuari buruzkoa. Félix Zapatero Soria jaunak egin du (8. or.).

—11-24/PES-00217. Galdera, Ezpeleta Jauregiko patioaren erabilerari buruzkoa. Eneka Maiz Ulaiar andreak egin du (8. or.).

- 11-24/PES-00218. Galdera, prebentzioko lurralde-ordezkarien proiektuak betetzeari buruzkoa. Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak egin du (9. or.).
- 11-24/PES-00219. Galdera, BSH electrodomésticos España, SA enpresak jaso dituen laguntza eta onura fiskalei buruzkoa. Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak egin du (10. or.).
- 11-24/PES-00220. Galdera, NEKPren eta beste sozietate publiko batzuen webguneetako gardentasun-atalei buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (11. or.).
- 11-24/PES-00221. Galdera, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren aldaketa aztertzeko adituen mahaiari buruzkoa. Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egin du (12. or.).
- 11-24/PES-00222. Galdera, Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasle elkartu laguntzaileen deialdiari buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (13. or.).
- 11-24/PES-00223. Galdera, AHTaren obrek Murugaingo baskoien herrixkako aztarna arkeologikoetan duten eraginari buruzkoa. Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egin du (14. or.).
- 11-24/PES-00224. Galdera, zerbitzuak kanpora ateratzeari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (15. or.).
- 11-24/PES-00225. Galdera, Cabanillasko gizarte-etxea inauguratzeko ekitaldiari buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (16. or.).
- 11-24/PES-00226. Galdera, Nafarroako Gobernu Komunikazioko eta Erakundeekiko Harremanetako zuzendari nagusiaren eginkizunei buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (17. or.).
- 11-24/PES-00227. Galdera, Europako Next Generation SEM funtsak betetzeari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (18. or.).
- 11-24/PES-00228. Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko lan-kontratu mugagabeko langile ez-finkoendako kalte-ordainei buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (19. or.).

---

**A saila:**  
**FORU-LEGE PROIEKTUAK**

---

**11-24/LEY-00002. 3/2024 Foru Legea, apirilaren 25ekoa, 2024ko aurrekontuan Nafarroako Gobernuko zenbait departamenturi 539.000 euroko aparteko kreditua ematekoa**

**AKATS ZUZENKETA**

Akats bat aurkitu da apirilaren 25eko 3/2024 Foru Legean, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuko zenbait departamenturi 539.000 euroko aparteko kreditu bat ematen baitzaie 2024ko aurrekontuan. Foru legea 58. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 2024ko apirilaren 25ean. Horrenbestez, ondoko zuzenketa egiten da:

2. artikuluan, honako hau esan ordez:

A30001 A3100 4609 432109 (E) Iruñeko Udalarentzako transferentzia. Pilotaren Interpretazio Zentroa	100.000
A30004 A3400 4609 432102 (E) Aezkoako Batzordearekiko Hitzarmena. Aezkoako Kultur Ola kudeatzea	30.000

Honako hau esan behar du:

A30001 A3100 7609 432109 (E) Iruñeko Udalarentzako transferentzia. Pilotaren Interpretazio Zentroa eraikitzeko proiektua idaztea	100.000
A30004 A3400 4819 432102 (E) Aezkoako Batzordearekiko Hitzarmena. Aezkoako Kultur Ola kudeatzea	30.000

Iruñean, 2024ko maiatzaren 8an

Lehenengo lehendakariordea, lehendakari jardunean: Ainhoa Unzu Garate

---

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **11-24/MOC-00065. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen baitu gure erkidegoan prentsa-askatasuna babesteko, eta Nafarroako Gobernuaren premiatzen baitu ez dezan kazetarien lana eragotz**

### *NAFARROAKO ALDERDI POPULARRAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Popularrak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen baitu gure erkidegoan prentsa-askatasuna babesteko, eta Nafarroako Gobernuaren premiatzen baitu ez dezan kazetarien lana eragotz.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 6an

Lehenengo lehendakariordea, lehendakari jardunear: Ainhoa Unzu Garate

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Popularraren talde parlamentarioaren eledun Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Lehendakaritza eta Berdintasun Departamentuari zuzendutako honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

UNESCOren Konferentzia Orokorren gomendioei jarraikiz Nazio Batuen Biltzar Nagusiak 1993ko maiatzaren 3an aldarrikatu zuen Prentsa-askatasunaren Mundu Eguna. 1994tik aitzina, urtero ospatzen da, "prentsa librea zein garrantzitsua den gogoratzeko, munduan prentsa-askatasuna ebaluatzeko, hedabideen

independentzia defendatzeko eta beren lanbidean jardutean bizia galdu duten kazetariak omentzeko".

Egun horrek agerian uzten du beharrezkoa dela gobernuek prentsa-askatasuna errespetatzea, eta hedabideen eginkizuna erabakigarria dela gizartean, informazio zehatz eta askotarikoa ematen duten neurrian, eta hori funtsezkoa dela edozein demokraziaren funtzionamenduari begira. Orobat balio du prentsari ezarritako murrizketak salatzeke eta hedabideen eta agintarien arteko elkarrizketa eraikitzailea sustatzeko, Nazio Batuek diotenez.

Herrialde demokratiko batean, funtsezkoa eta beharrezkoa da askotariko iritziak dauden espazioak egon daitezen, non ez diren isilaraziko ahots disidenteak, ezpada entzun eta errespetatu eginen diren. Prentsa librea oinarrituta eraikitzen dira aniztasuna eta eztabaida, elementu horiek ezinbestekoak baitira gizarte demokratiko baten funtzionamendu egokirako.

Halere, azkenaldian kezka ikusi ahal izan dugu boterean daudenak askatasun hori ahultzen saiatzen direla. Pedro Sánchez, bere agenda politikorekin bat egiten ez duten hedabideak isilarazten saiatu baita, gure demokraziaren zimenduak ahultzen ari da. Totalitarismo-eraso hori ezin da ez toleratu ez modu pasiboan onartu. Prentsa ezin da Gobernuaren kontrolpean egon; aitzitik, beharrezko kontrapisua izan behar du, laugarren boterea, Gobernuaren jarduna herriaren mesedetan ikuskatzen eta kontrolatzen duena.

Garrantzitsua da gogoraraztea prentsa-askatasuna ez dela pribilegioa, ezpada herritar guztion eskubide besterenezina. Iritzi eta ikusmolde aniztasunetik sortzen da, baldin eta egiarekiko eta objektibotasunarekiko konpromiso zorrotzean

oinarritzen bada. Prentsaren ardura da zehaztasunez eta zintzotasunez informatzea, baina eskubide du, orobat, gure gizartearen moldatzen duten gertakarietan oinarritutako iritziak eta kritikak adierazteko.

Iritzi-aniztasuna da, hain zuzen ere, demokrazia osasuntsu baten muina. Eztabaida irekiaren eta ideia-alderaketaren eskutik heldu ohi dira gizarte gisa aurre egin beharreko erronken konponbidea. Ahots bakoitzak, zeharo kontrakoa izan daitekeena ere, aberastu egiten du ikuspegi informatiboa, eta inguratzen gaituen errealitatea bere osotasunean ulertzetik gertuago jartzen gaitu.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Parlamentuak honako erabaki proposamen hau onesten du:

1. Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du gure erkidegoan prentsa-askatasuna

babesteko, eta Nafarroako Gobernua premiatzen du ez dezan kazetarien lana eragotz.

2. Nafarroako Parlamentuak erakunde guztiak premiatzen ditu, bai Nafarroakoak bai Espainiakok, hedabide jakin batzuk zentsuratzeko ahalegina gelditu dezan.

3. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du kazetariak eta hedabideak jendaurrean seinalatzeari utz diezaion.

4. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua eta ordezkari publikoak premiatzen ditu ez dezaten ez esamesarik ez fake newsik heda, Nafarroako eta Espainiako gizartearen desinformazioa ez bultzatzeko.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 2an

Eleduna: Javier García Jiménez

---

## **11-24/MOC-00055. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Gerra Zibilean eta frankismoan biktima izandakoen eta errepresaliatuen “Oroibidea” datu-basean sar ditzan Errepublikako agintarien kontrolpeko lurraldean eraildakoak eta errepresaliatutakoak**

### *MEMORIA ETA BIZIKIDETZA, KANPO EKINTZA ETA EUSKARA BATZORDEAK EZETSI DU*

Memoria eta Bizikidetza, Kanpo Ekintza eta Euskara Batzordeak, 2024ko maiatzaren 7an egindako bilkuran, ezetsi du Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioko Iñaki Iriarte López jaunak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Gerra Zibilean eta frankismoan biktima izandakoen eta errepresaliatuen “Oroibidea” datu-basean sar ditzan Erre-

publikako agintarien kontrolpeko lurraldean eraildakoak eta errepresaliatutakoak. Mozioa 2024ko apirilaren 16ko 53. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 7an

Lehenengo lehendakariordea, jarduneko lehendakaria: Ainhoa Unzu Garate

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**11-24/PES-00213. Galdera, gizarte-bazterkeria larria dela-eta Iruñean izapidetutako errenta bermatuei buruzkoa**

*RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galdera, gizarte-bazterkeria larria dela-eta Iruñean izapidetutako errenta bermatuei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 6an

Lehenengo lehendakariordea, jarduneko lehendakaria: Ainhoa Unzu Garate

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Zenbat errenta bermatu izapidetu dira Iruñean azken hiru urteotan gizarte-bazterkeria larria dela-eta?

Iruñean, 2024ko apirilaren 26an

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

## 11-24/PES-00214. Galdera, gizarte-bazterkeria larria dela-eta Nafarroan izapidetutako errenta bermatuei buruzkoa

*RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galdera, gizarte-bazterkeria larria dela-eta Iruñean izapidetutako errenta bermatuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 6an

Lehenengo lehendakariordea, jarduneko lehendakaria: Ainhoa Unzu Garate

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Zenbat errenta bermatu izapidetu dira Nafarroan azken hiru urteotan gizarte-bazterkeria larria dela-eta?

Iruñean, 2024ko apirilaren 26an

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

## 11-24/PES-00215. Galdera, Oronoz-Mugairiko hiri arteko autobusez aldatzeko geltokiari buruzkoa

*MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak egindako galdera, Oronoz-Mugairiko hiri arteko autobusez aldatzeko geltokiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 6an

Lehenengo lehendakariordea, jarduneko lehendakaria: Ainhoa Unzu Garate

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

1. Zer jarduketa egin dira, irisgarritasuna dela-eta, Oronoz-Mugairiko hiri arteko autobusez aldatzeko geltokia egitean?

2. Jarduketa bakoitzaren aurrekontua xehakiatua.

Iruñean, 2024ko apirilaren 26an

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

## 11-24/PES-00216. Galdera, NEKP Basoaren proiektuari buruzkoa

*FÉLIX ZAPATERO SORIA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Félix Zapatero Soria jaunak egindako galdera, NEKP Basoaren proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 6an

Lehenengo lehendakariordea, jarduneko lehendakaria: Ainhoa Unzu Garate

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Félix Zapatero Soria jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

NEKP Basoaren proiektuan lurzoru publiko eta pribatuetarako proiektuak sartzen al dira?

Bateragarriak al dira NEKP Basoaren proiektua eta toki-entitateek beste sustatzaile pribatu batzuekin jada dauzkaten beste proiektu batzuk?

Iruñean, 2024ko apirilaren 29an

Foru parlamentaria: Félix Zapatero Soria

---

## 11-24/PES-00217. Galdera, Ezpeleta Jauregiko patioaren erabilerari buruzkoa

*ENEKA MAIZ ULAIAR ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Eneka Maiz Ulaiar andreak egindako galdera, Ezpeleta Jauregiko patioaren erabilerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 6an

Lehenengo lehendakariordea, jarduneko lehendakaria: Ainhoa Unzu Garate

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa taldeko foru parlamentari Eneka Maiz Ulaiar andreak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren babesean, eskatzen du Nafarroako Gobernuak honako galdera hauei idatziz erantzun diezaien.

Orain arte Ezpeleta Jauregiaren patioa arratsaldez irekita egoten zen, auzoko herritarren eta familien eskura. Berriki, ordea, iragarri da apirilaren 17tik aurrera patio hori Hezitzaile Eskolako eta EOIDNAko erabiltzaileek besterik ez dutela erabiliko.

Noiztik egon da irekia patioa herritar guztientzat? Zein egoeratan edo baldintzatan ireki zen? Zergatik itxi da patioa arratsaldez?

Nork erabaki du?

Zein prozedura erabili da erabaki hori hartzeko? Nola komunikatu zaie erabaki hori erabiltzaileei?

Iruñean, 2024ko apirilaren 29an

Foru parlamentaria: Eneka Maiz Ulaiar



## 11-24/PES-00218. Galdera, prebentzioko lurralde-ordezkarien proiektuak betetzeari buruzkoa

### ARANZAZU IZURDIAGA OSINAGA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak egindako galdera, prebentzioko lurralde-ordezkarien proiektuak betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 6an

Lehenengo lehendakariordea, jarduneko lehendakaria: Ainhoa Unzu Garate

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Arantxa Izurdiaga Osinagak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko Lan Osasunaren Zuzendaritzak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko Lan Osasunaren Zuzendaritzak proiektu horien betetzeari buruz egindako balorazio-txostena eskatzen du EH Bildu talde parlamentarioak (programa deituko diegu horien betetzeari), honako hauei dagokienez:

1. CEN-CCOO eta CEN-UGT organizazioek prebentzioko lurralde-ordezkarien 2022ko uztailetik 2023ko uztaile bitarteko proiektuen bete-

tzeari buruzko "azken txosten teknikoak" egin zituzten, 2023-07-31ko datarekin. Lan Osasunaren Zuzendaritzak ba al du horien berri? Programa horren ebaluazioan kolaboratu al dute?

2. Egokiak al dira prebentzioko lurralde-ordezkariek bisitatutako enpresen hautaketa-irizpideak?

3. Egokiak eta aski al dira prebentzioko lurralde-ordezkariek enpresetan baloratutako item-ak eta prebentzioko lurralde-ordezkariek haiei buruz egindako adostasun- nahiz desadostasun-balorazio-irizpideak? Beste item-en bat sartu beharko al litzateke?

4. Prebentzioko lurralde-ordezkariek enpresei proposatutako jarduketa-neurriak egokiak al dira?

5. Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko Lan Osasunaren Zuzendariordearen eta Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaitzaren zerbitzu teknikoaren gisa bereko jarduketa-programa baino handiagoa ala txikiagoa da prebentzioko lurralde-ordezkarien programaren kostua?

6. Teilakatu egiten al dira prebentzioko lurralde-ordezkarien bisiten edukiak eta enpresaren, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuko Lan Osasunaren zerbitzu teknikoaren nahiz Lan Osasunaren auditoretza-entitateen prebentzio-modalitatea?

7. Egokiak eta aski al dira enpresetan genero-desberdinkeria balioesteko irizpideak?

8. Zer aldaketa egin beharra dago prebentzioko lurralde-ordezkarien programan, horren eraginkortasuna hobetzeko?

Iruñean, 2024ko apirilaren 29an

Foru parlamentaria: Arantxa Izurdiaga Osinaga

## **11-24/PES-00219. Galdera, BSH electrodomésticos España, SA enpresak jaso dituen laguntza eta onura fiskalei buruzkoa**

### *ARANZAZU IZURDIAGA OSINAGA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak egindako galdera, BSH electrodomésticos España, SA enpresak jaso dituen laguntza eta onura fiskalei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 6an

Lehenengo lehendakariordea, jarduneko lehendakaria: Ainhoa Unzu Garate

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Arantxa Izurdiaga Osina-

ga andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

– Zer laguntza edo dirulaguntza jaso dituzkeen hamar urteetan BSH Electrodomésticos España, SA enpresak, egiturazko edo teknologiko inbertsioengatik, energia berriztagarrien bidezko sistemak ezartzeagatik, enplegua sortzeagatik, prestakuntzazagatik, prestakuntza-sistemarengatik, prebentzio-sistemengatik, I+G+b laguntzeagatik, berdintasun-plana egin edo garatzeagatik edo beste edozein kontzepturengatik?

– Zer zerga-onura (I+G+b jarduerengatik kerkariak, inbertitzeagatik kerkaria edo bestelako kerkariak) eta zer zenbateko aplikatu ditu BSH Electrodomésticos España, SA enpresak azken hamar urteotan, sozietateen gaineko zergaren aitorpenetan?

Iruñean, 2024ko apirilaren 30ean

Foru parlamentaria: Arantxa Izurdiaga Osinaga

## 11-24/PES-00220. Galdera, NEKPren eta beste sozietate publiko batzuen webguneetako gardentasun-atalei buruzkoa

CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, NEKPren eta beste sozietate publiko batzuen webguneetako gardentasun-atalei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintukoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 6an

Lehenengo lehendakariordea, jarduneko lehendakaria: Ainhoa Unzu Garate

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen dena-

ren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

– 2024ko apirilaren 30ean, bai Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoak, bai Nafarroako Osasun-garraioa, Tuterako Nekazaritza-elikagaien Hiria, CEIN-Nafarroako Enpresa eta Berrikuntzarako Europako Zentroa, Ikaskuntza Integralerako Nafarroako Zentroa, GAN-Nafarroako Ingurumen Kudeaketa, INTIA- Nekazaritzako Elikagaien Teknologien eta Azpiegituren Institutua, Nafarbide, Nasertic, Nasuvinsa, Sodena, Start Up Capital, Katastro Lanak nahiz Tracasa Instrumental sozietate publikoek gaurkotu gabe zeukaten euren webguneko gardentasun-atala, administrazio kontseiluen aktei dagokienez.

– Noren ardura da horiek argitaratzea?

– Noiz argitaratuko dituzte?

– Nafarbide eta Bidean enpresa publikoek zergatik ez daukate gardentasun-atalik Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoaren webgunean?

Iruñean, 2024ko apirilaren 30ean

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

## **11-24/PES-00221. Galdera, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testuategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren aldaketa aztertzeko adituen mahaiari buruzkoa**

### *MIKEL ZABALETA ARAMENDIA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egindako galdera, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testuategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren aldaketa aztertzeko adituen mahaiari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 6an

Lehenengo lehendakariordea, jarduneko lehendakaria: Ainhoa Unzu Garate

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendia, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egiten dizkio Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako Departamentuari, idatziz erantzun ditzan:

2024ko apirilaren 11n egindako kontroleko osoko bilkuran, ahozko galdera bat egin nion Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako Departamentuko kontseilariari (11-24/POR-00128), jakiteko ea asmorik ote zuen Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testuategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretua aldatzeko, egun landa eremuak dituen beharrezanean erantzun ahal izateko.

Bere erantzunean, Lurralde Kohesiorako Departamentuko kontseilariak aipatu zuen adituen mahai bat ari dela arau horren aldaketaz hausnartzen.

Horregatik guztiagatik, honako galdera hauek egiten ditut, idatziz erantzuteko:

1. Nork osatzen du kontseilariak aipatutako adituen mahai hori?

2. Zer egin du orain arte eta zertan da adituen mahai horren lana?

3. Zer denbora-aurreikuspen darabil adituen mahai horrek?

Iruñean, 2024ko apirilaren 30ean

Foru parlamentaria: Mikel Zabaleta Aramendia

## 11-24/PES-00222. Galdera, Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasle elkartu laguntzaileen deialdiari buruzkoa

*CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasle elkartu laguntzaileen deialdiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 6an

Lehenengo lehendakariordea, jarduneko lehendakaria: Ainhoa Unzu Garate

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Jakin dugunez, Nafarroako Gobernuako Osasun Departamentuarekin zerikusia daukaten arazoak direla medio, ez da eginen 2024-2025 ikasturteko irakasle-premiak asetze aldera iragarri zen Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasle elkartu laguntzaileen deialdia.

Zein zen lehiaketa horretarako aurreikusitako lanpostuen bolumena? Osasun Departamentuarekin zerikusia daukan zer arazoik eragozten du lanpostu horien deialdia egitea?

Aurreikuspen faltarik egon al da Osasun Departamentuan? Osasun Departamentuak noizko konponduko ditu lanpostu horien deialdia egitea eragotzi duten arazoak?

Horrek guztiak zer eragin izanen du lehiaketan parte hartu nahi zuten pertsonengan?

Iruñean, 2024ko apirilaren 30ean

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

## 11-24/PES-00223. Galdera, AHTaren obrek Murugaingo baskoien herrixkako aztarna arkeologikoetan duten eraginari buruzkoa

MIKEL ZABALETA ARAMENDIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egindako galdera, AHTaren obrek Murugaingo baskoien herrixkako aztarna arkeologikoetan duten eraginari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 6an

Lehenengo lehendakariordea, jarduneko lehendakaria: Ainhoa Unzu Garate

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendiak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egiten dizkio Nafarroako Gobernuak Kultura, Kirol eta Turismo Departamentuari, idatziz erantzun ditzan:

Oraintsu jakin da Muru Artederretan egindako indusketa arkeologikoek begi-bistan utzi dutela Murugaingo baskoien herrixkako defentsarako harresia. Hain zuzen ere, Burdin Aroko kastroa inguratzen zuen harresiaren zimendua. Murugaingo mendiaren hegoaldean egiten ari diren laginketa arkeologikoetatik heldu dira aurkikuntza horiek; izan ere, laster hasiko dira herrixka gurutzatuko duen abiadura handiko trenaren tunela eraikitzeo obrak.

Antza denez, abiadura handiko trenaren tunelaren ahoa eraikitzen bada harresiaren parte bat honda liteke.

Horregatik guztiagatik, honako galdera hauek egiten ditut, idatziz erantzuteko:

1. Kultura, Kirol eta Turismo Departamentuak ba al du gertakari horien berri?

2. Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiak prospekzio arkeologikorik, azterlanik edo bestelako txostenik egin edo agindu al du Murugaingo baskoien herrixkari buruz?

3. Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiak ba al du txostenik, azterlanik edo dokumenturik Murugaingo baskoien herrixkari buruz?

4. Abiadura handiko trenaren obrek zer eragin izanen dute Murugaingo baskoien herrixkako aztarna arkeologikoetan edo oraintsu aurkitu den defentsa-harresian?

5. Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiak informatu al du edo inolako azterlanik egin al du abiadura handiko trenaren obrek Murugaingo baskoien herrixkako aztarna arkeologikoetan edo oraintsu aurkitu den defentsarako harresian eragin ditzaketen kalteez?

6. Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiak inolako harremanik edo komunikaziorik izan al du Muru Artederretako Kontzejuarekin edo Tiebas-Muru Artederretako Udalarekin, idazki honetan aipatzen den auzia aztertzeko?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 2an

Foru parlamentaria: Mikel Aramendia Zabaleta

**11-24/PES-00224. Galdera, zerbitzuak kanpora ateratzeari buruzkoa***ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, zerbitzuak kanpora ateratzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 6an

Lehenengo lehendakariordea, jarduneko lehendakaria: Ainhoa Unzu Garate

**GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta Industriako eta Enpresen Transizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuak idatziz erantzun diezazkion:

Nafarroako Gobernuako departamentuetako bakoitzak zenbat zerbitzu ateratzen ditu kanpora gaur egun?

Zein da departamentuek kanpora ateratako zerbitzu horien onuradun diren enpresa edo pertsona fisikoen zerrenda?

Zein da departamentuek kanpora ateratako kontratu horietako bakoitzaren esleipen-prezioa?

Zein da departamentuek kanpora ateratako kontratu horietako bakoitzaren hasierako nahiz amaierako data?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 2an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

## 11-24/PES-00225. Galdera, Cabanillasko gizarte-etxea inauguratzeko ekitaldiari buruzkoa

*CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, Cabanillasko gizarte-etxea inauguratzeko ekitaldiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 6an

Lehenengo lehendakariordea, jarduneko lehendakaria: Ainhoa Unzu Garate

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen dena-

ren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

– Nafarroako Gobernuko Komunikazioaren eta Proiektio Instituzionalaren zuzendari nagusia Nafarroako Gobernuko lehendakariarekin batera joan zen Cabanillasko gizarte-etxe berriaren inaugurazio-ekitaldira martxoaren 22an. Bere eginkizunetako zein bete zuen zehatz-mehatz ekitaldi hartan?

– Lehendakariaren aholkulari Blanca Cenzano Nafarroako Gobernuko lehendakariarekin batera joan zen Cabanillasko gizarte-etxe berriaren inaugurazio-ekitaldira martxoaren 22an. Bere eginkizunetako zein bete zuen zehatz-mehatz ekitaldi hartan?

– Lehendakariaren aholkulari Xabier Casimiro Nafarroako Gobernuko lehendakariarekin batera joan zen Cabanillasko gizarte-etxe berriaren inaugurazio-ekitaldira martxoaren 22an. Bere eginkizunetako zein bete zuen zehatz-mehatz ekitaldi hartan?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 2an

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero



## **11-24/PES-00226. Galdera, Nafarroako Gobernuko Komunikazioko eta Erakundeekiko Harremanetako zuzendari nagusiaren eginkizunei buruzkoa**

*CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, Nafarroako Gobernuko Komunikazioko eta Erakundeekiko Harremanetako zuzendari nagusiaren eginkizunei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 6an

Lehenengo lehendakariordea, jarduneko lehendakaria: Ainhoa Unzu Garate

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

– Nafarroako Gobernuko Komunikazioaren eta Proiektzio Instituzionalaren zuzendari nagusia zergatik joan zen Nafarroako lehendakariarekin batera 2024ko martxoaren 6ko eta apirilaren 16ko Foru Araubideko Batzordearen bilkuretara?

– Zer eginkizun zehatz izan zuen ekitaldi horretan? Zuzendari nagusia Gobernuko gainontzeko kideekin ere joaten al da Parlamentuko agerraldietara? Joaten ez bada, zer irizpide darabil batzuetara joateko eta beste batzuetara ez joateko?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 2an

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

## 11-24/PES-00227. Galdera, Europako Next Generation SEM funtsak betetzeari buruzkoa

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, Europako Next Generation SEM funtsak betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintukoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 6an

Lehenengo lehendakariordea, jarduneko lehendakaria: Ainhoa Unzu Garate

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

2024ko apirilaren 30ean egindako agerraldian, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak adierazi zuen esparru pribatura joan direla Europako Next Generation SEM (2024-03-31) funtsetatik betetako 182,5 milioietatik 133; hau da, % 72,5.

1. Zeintzuk dira, xehakaturik, baieztapen horren atzean dauden jarduketak eta onuradunak?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 2an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

## 11-24/PES-00228. Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko lan-kontratu mugagabeko langile ez-finkoendako kalte-ordainei buruzkoa

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 6an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko lan-kontratu mugagabeko langile ez-finkoendako kalte-ordainei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 6an

Lehenengo lehendakariordea, jarduneko lehendakaria: Ainhoa Unzu Garate

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuak idatziz erantzun diezazkion:

Nafarroako Gobernuaren 2024ko apirilaren 24ko akordio baten bidez, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan kreditua handitzeko aurrekontu-aldaketa bat baimendu zen, guztira 288.785,67 eurokoa, honako aurrekontuko partida honetan: 540000-52000-1820-311100, "Epaia

betearaztea, egonkortzeagatiko kalte-ordainak eta konpentsazioak".

Kreditu-gehikuntza hori egin zen handitu egin behar zelako partida horretan baliagarri zegoen kreditua, Funtzio Publikoko zuzendari nagusiaren 406/2024, 407 /2024, 500/2024 eta 7/2024 ebazpenetako egonkortze-prozesuen ondorioz administrazioarekiko harremana bukatu zaien langile mugagabe ez-finkoentzako kalte-ordainak ordaindu ahal izateko.

Honako galdera hauek egin ditugu:

1) Egonkortze-prozesu horietan parte hartu duten pertsonetatik zenbat ziren langile mugagabe ez-finkoak?

2) Langile mugagabe ez-finkoak ziren horietako zenbatek ez dute lanposturik lortu egonkortze-prozesu horietan?

3) Zenbat diru jaso dute batez beste, kalte-ordain gisa, lanposturik lortu ez eta horretarako eskubidea zuten pertsonak?

4) Zenbat iraun du, batez beste, langile mugagabe ez-finkoen administrazioarekiko lan-harremanak?

5) Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak 2024ko otsailaren 22an emandako epaia, C-59 /22, C-110/22 eta C-159/22 metatutako auzietan, foru-administrazioarekiko lan-harremana bukatu zaien pertsona horien egoerari aplikatzekoa al da? Zentzuzkoa?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 2an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

